



ILLARGIJA'REN ZIGORRA

(I P U Ñ A)

Antxiña baten gixon bai, ez guraso ta ez anaya, «Etxetxu» eritxon basetxe baten bakar-bakarrik bixi zan.

Egun baten, bere etxian lapurrak sartu ziran, eta kortako beirik ederrena ostu eben. Urrengo egunian be, lapurrak barrijen-barri sartu ziran; eta orduban, bei, txal, txarri, asto ta abar, etxeko abere gustijak tularrez eruan ebezan.

Olako zoritxarragaz «Etxetxu»'ko gixon bakartija, tamalez artega jarri zan. Eta, ezetariko abere barik aurrerantzian bixikera iñuna ta latza ixango ebala-ta, negar eta negar egifen eban.

Iñunte baten, zoritxar iñun ori gomutan ebala, bere gelako leyotik ortzia arrigarriri apaintzen eben illargi ta ixarrari adi-adi jarri zan.

—Ez abere ta ez ezer... jau dok bixikeriaren laiza ta baltza...! —iñuan le-yotik adi negarrez.

Onetan, eskaratzeko kezuluan zarata ta didar bakanak ixan ziran.

Alako zarata itzelakaz «Etxetxu»'ko gixona gelduta geratu zan; gaizkiñen batzuk barrijen-barri etxeratu ziralakuan ikaraz jarri zan.

Apur bat adoretuta gero, ba-dua bertara, ta kezuluaren erdijan, gixon bat, kedar-artian zirkiñik egin ezikiñ eguala ikusi eban. Orduan, aren ikaria! Ene!

—Ona emen, beste lapur edo gaizkiñen bat..! —esan eban bere kolkorako. Zer ete dok gero berau? Orren atzamarretan jausten banok, nire galdua..!

Eta, nor edo zer ete zanentz ifandu eutsonian, kezuloko gixonak, ez eutson itzik egin; jaramonik bez.

Alako baten baña, gixon ezezaguna, bere artian uluka ta garrasika asi zan; didar andiz esaten ebala:

— Ez berantza
ta ez gorantza;
kedar-artian baltzituta
emen nayagok ni galduta!

Ori entzunik, «Etxetxu»'ko gixonak, lapurrak ezelan be gaixik ezingo eutsala egin eta, barre-barreka esan eutson.

—Galduta ba-ago, ago...
Bestela, gero galduago...

Ta, ori esanda beste barik, «Etxetxu»'ko gixona, azkora zorrotza eskuetan ebala, lapurra erretako egurretan basora juan zan.

Basora erdu zaneokxe, egur-ixorta andi bat egin eban. Eta, egur-zamia bizkarrian ebala, beriala etxerantza abijau zan.

Olan bide zati bat igarorikuan, bide-ertzeko landatik otso andi bat urreratu yakon.

Eta, abere bildurgarri arek, «Etxetxu»'ko gixonari, bere ezkerreko oñian agin zorrotzak ezarri eutsozan.

Orduban gixonak, miñaren-miñak eraginda itz zantarrak esan ebazan.

—Otso madariketua! Illargi...

Azkenengo itza oguziñian, txori batek, kardantxillo batek, eresi iñunez abestiuta gero, gixonari belarri-belarrira esan eutson.

—Ixi, Ixi... Itz ondo egin, ondo,
zoritxar-artian be, itz ondo egin ondo.

Eta, ori esanikuan, txoriñak bertatik iges egin eban.

Eta gixonak, txorijaren esanari bape jaramon barik, lengo bidian aurrera egi eban; elxera al bait ariñen erdutekotan iraduz etorran.

Gerotxuago, atxa-bera azeri bat ikotika jauzkan agertu zan; eta azeriñak

be, oisuk lez, bere agin zorrotzak gixonaren ezkerreko onian sartu ebazan aginka egin eutson.

Bigarren aginkadan, gure gixona, ezin geyaguan mindu ta asarratu zan. Eta, asarre-bitsetan bere begijak gorantza zuzenduta itz zatar-zatarrak esan ebazan.

—Illargi zirtzilla.! Nun dok ire laguntza ba..? —esan eban asarrez.

Ordurarte barreka zan illargi mosu zabala, olako itzak entzutian, betozkor jarri zan.

Eta, orduantxe, bat-batez jagi zan axe-indartsu batek, «Etxelxu»'ko gixona, bere egur-ixorta ta guzti indar-bereziz bildurgarriro gorantz jasota, ilargiraño bertaraño eruan eban.

«Etxelxu» basetxeko gixona, itz zantar itxusijak esan ebazalako, ilargijak beragana eruan eban. Eta ludija ludi dan artian egur-ixortiazen zama astuna bizkarrian dabela, batera ta bestera jira-biraka atseden apurrik barik beti ibilteko ziorlu eban.

Mañariko

AURTZO TXIKIA

(Jokuaren kalteak)

*Aurtzo txikia negarrez dago:
ama, emaiozu titia;
aita gaiztoa tabernan dago
pikaro jokolaria.*

*Aita jokuan, ama lanian,
auxe bai negargarria!
Eskerrak zuri, lore polita,
alaitzen dezu etxia.*

*Ardua edan, txanponak galdu,
orlaxe dabil aitatxo;
Jainko maitia, gutzaz erruki,
erruki zazu amatxo.*

*Iñoiz aitatxo txintxotzen bada,
oi, zeñen eskar aundia!
orduantxe nik, bai, ekarriko
zapata berri txuriak.*

*Bagiak xabalik ametsetan
ari naiz oso poliki,
aitak eltzian zure zapatak
txitxi orde z sartu dizkit.*

*Joku gaizto txar zikin ziztriña,
nondikan agu sortua?
Nere maitetxo kutun polita,
ik dek alperrik galdua.*

*Ama gaxoa ainbeste lanez
osoro zaigu ondatu;
alare aitatxok errukirik
ez dio batere artu.*

*Negar ta negar beti naigabez
iñontxo ere pozik ez:
ama zerura joan zanetik
iñortxok maitasunik ez.*